



## **COVID-19AREN ONDORIOZ HERRIKO KALEETAKO KOMERTZIOA ETA OSTALARITZA SUSPERTZEKO BONOEN KANPAINA**

### **OINARRIAK**

#### **I. HELBURUA:**

Covid-19aren ondorioa Oiartzungo herrigunean itxirik egon diren edo beraien jarduera murriztua eduki duten komertzioak beraien aktibitatea berreskuratzeko kontsumoa sustatuko duen bono sistema sortzea da.

Oiartzungo Udalak Itturri merkatarien elkartearen eta herriko ostalarien kolaborazioz martxan jarriko duen egitasmoa da. Modu honetara Covid-19aren osasun krisiagatik kaltetuak izan diren merkataritza eta zerbitzu sektoreetan erosketak egitea bultzatu nahi da.

Modu honetara herritarrak 30€ gastatzen dituen bakoitzean 40€ko erosketa egingo du, Udalak falta diren 10€ak jarritz eta komertzio txikira gerturatuko ditugu herritarrak.

#### **II. EKINTZAREN EZAUGARRIAK:**

- Oiartzungo Udalak 40€ko balioa duten bonoak banatuko ditu parte hartuko duten komertzioetan.
- Herritarrak 30€rekin bono bat erosi ahal izango du komertzio bakoitzean.
- Bono bakoitza 10€ko lau bonok osatuko dute.
- Erosketaren zenbatekoa balearen zenbatekoa baino txikiagoa bada, diferentzia ez da eskudirutan itzuliko.
- Bonoak edo baleak ezin dira eskudirutan trukatu, eta ez da inola ere itzuliko balio horren zenbatekoa.
- Bonoak maiatzaren 18tik aurrera erosi ahal izango dira parte hartzen duten merkataritza eta ostalaritza guneetan. Zerrenda ikusgai [www.oiartzun.eus](http://www.oiartzun.eus) eta [www.itturri.eus](http://www.itturri.eus) webguneetan.
- Bonoak uztailaren 30a baino lehen gastatu beharko dira.

### III. MERKATARI ETA OSTALARIEK PARTE HARTZEKO BALDINTZAK:

Edozein pertsona fisiko edo juridikok parte hartu ahal izango du kanpaina honetan, baldin eta bere enpresa-jarduera merkataritza edo zerbitzuen sektorearen barruan kokatzen bada, kalean establezimendu irekia badu ekonomia-jardueren gaineko zergan dagokion altarekin, eta honako ezaugarriak betetzen baditu:

- Saltokia Oiartzunen izatea. Merkataritza guneetan daudenak ezin dute aurkeztu.
- Enpresak gehienez besteren konturako 10 langileko lan-taldea izatea kontratatuta. Hori ziurtatzeko otsaileko TC1 agiria aurkeztu beharko da.
- Pertsona zuzendutako produktuak eta zerbitzuak saltzea.
- Covid-19ak eratorritako krisiaren ondorioz kaltetua izana, zehazki, honako modu hauetakoren batean:

- Establezimendu fisikoa 463/2020 Errege Dekretuaren ondorioz itxi behar izana.
- Fakturazioa %50 baino gehiago murriztu izana apirilean, 2019ko azken 6 hilabeteetan fakturatutako batez bestekoarekin alderatuta. Zinpeko aitortpena aurkeztu beharko du.

Oiartzungo Udalak merkataria bakoitzaren egoera zein den diagnostiko bat egiteko galdetegia sortu du. Parte hartzeko galdetegi hori osatua edukitzea beharrezkoa izango da.

#### **Atxikitako establezimenduaren betebeharrak:**

- Atxikitako enpresek kanpainako informazio-materialak jasotzeko, kokatzeko eta, hala badagokio, zabaltzeko konpromisoa hartzen dute, eta establezimenduan ondo ikusteko moduan jarriko dituzte. Informazio-materiala honako hau izango da:

- Kanpainako parte-hartzaile moduan identifikatzen dituen kartela.
  - Bono bakoitzean bere enpresako zigilua edo izena jarriko du bonoaren atzekaldean.
- Aldi berean, atxikitako enpresetako arduradunek konpromisoa hartzen dute establezimenduan erabilitako bonoak (edo baleak) egiazkoak direla egiaztatzeko.
- Bonoa erosten duen bezeroak bonoan izen-abizenak eta NAN zenbakia jarrita

dituela egiaztatu beharko du.

- Kontsumitzaileak bonoa erabili ondoren, enpresa arduratuko da txartela Oiartzungo udaletxean entregatzeaz 2020ko abuztuaren 31a baino lehen, banku-transferentzia bidez kobratzeko.

**Kanpainarako eskabideak egitea:**

Kanpainari buruzko informazio guztia [www.oiartzun.eus](http://www.oiartzun.eus) web orrian daude. Oinarriekin batera bi eranskin daude: eskaera orria, TC1a eta fakturazioa %50 baino gehiago jaitsi zaienentzako zinpeko aitortpena. Dokumentu hauek aurkeztu beharko dira administrazio elektronikoko bidez [www.oiartzun.eus](http://www.oiartzun.eus) gunean edo emailaz.

Eskabide elektronikoa egiteko lotura:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/SolicitudDetalle.aspx?idAyto=63&id=0998&idioma=eu-ES>

Telefonoa: 943490142

Ordutegia: 08:30-14:00

Emaila: [covid19merkatariak@oiartzun.eus](mailto:covid19merkatariak@oiartzun.eus)

Parte-hartze eskaerak aurkezteko epea 2020ko maiatzaren 12an, 14:00tan, amaituko da.

**Bonoak trukatzeko modua:**

- Jasotako bono originala edo originalak gorde tikeen kopiarekin. Bonoan kontsumitzailearen datuak jarrita daudela egiaztatu beharko da.
- Oiartzungo udaletxean aurkeztu.
- Aurkeztutako bonoei dagokien zenbatekoa establezimenduari abonatu zaio, bonoak entregatzeko unean horretarako emandako kontu-zenbakira transferentzia eginez

**IV. KONTSUMITZAILEEKIN LOTUTAKO INFORMAZIOA**

*-OINARRIAK ONARTZEA*

Bonoak eskuratzeak dokumentu honetan jasotzen diren oinarriak onartzea dakar.

*-BONOAK ESKURATZEA ETA ERABILTZEA*

- **Bonoak eskuratzeko eskubideak eta mugak.**

Done eztebe plaza 1, 20180 Oiartzun · 943 49 01 42 · [www.oiartzun.eus](http://www.oiartzun.eus)

Bonoak 18 urtetik gorako edonork erosi ahal izango ditu. Aldi berean, pertsona berak gehienez ere bi bono erosi ahal izango ditu establezimendu bakoitzeko.

**•Eskuratzeko moduak**

Interesatuak 2020ko maiatzaren 18tik aurrera erosi ahal izango dituzte bonoak, jaulkiko diren bonoak agortu arte, parte hartuko duten komertzio eta ostalaritza guneeetan.

Bonoak erosteko unean bertan ordaindu behar dira. Banku-txartela erabiliko da lehentasunezko ordainketa-sistema gisa.

**•Bonoen erabilera**

Bonoak erosten dituzten pertsonak 2020ko maiatzaren 18tik 2020ko uztailaren 30era bitartean erabili ahal izango dituzte, bi datak barne. Epe hori igarotakoan, baliorik gabe geratuko dira bonoak.

Bonoak kanpainari atxikitako saltokietan erabili ahal izango dira. Bono bakoitza erosi den establezimenduan erabili beharko da.

Erabiltzaileak bono (edo bale) originalak aurkeztu eta entregatu beharko ditu horiek erabiliko dituen establezimenduan. Merkatariak erabiltzaileari izen-abizenak, identifikazioa eta harremanetarako telefono-zenbakia eskatu ahal izango dizkio, bonoaren erabileraren inguruan sor daitezkeen nahasketak argitzeko.

Erosketaren zenbatekoa balearen zenbatekoa baino txikiagoa bada, diferentzia ez da eskudirutan itzuliko. Bonoak edo baleak ezin dira eskudirutan trukatu, eta ez da inola ere itzuliko balio horren zenbatekoa.

**•Erabiltzailearen erantzukizuna**

Bonoak modu arduratsuan erosi eta erabili beharko dira, eta kontuan hartu beharko da bonorik edo ordaindutako zenbatekorik ez dela itzuliko berauek galdu, ahaztu edo ezjakintasunagatik sortu daitezkeen bestelako egoerengatik.